

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Prestatu eta trebatzeko ikastaroak

#### HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

## 4944

*EBAZPENA, 2013ko urriaren 23koa, Hezkuntzako sailburuordearena, Irakasleen Hizkuntza Eskakizunetarako Azterketa Batzorde Bateragilea izendatzen duena.*

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 1994ko urtarrilaren 10eko Aginduak bere 12. artikuluan dioenaren ildotik, hezkuntzako hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketen Ebaluazio Batzorde Bateragilea izendatzea da Ebazpen honen xedea.

Horregatik, hizkuntza-eskakizunen azterketak garaiz eta zuzen antolatu ahal izateko, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Ebazpen honen bidez Irakasleen Hizkuntza Eskakizunetarako Azterketa-Batzorde Bateragilea izendatzen da.

2. artikulua.– Batzorde bateragilea honako kideok osatuko dute:

- Ibon Olaziregi Salaberria jauna, lehendakaria.
- Imanol Alvarez García jauna, idazkaria.
- Maiteder Erkiaga Laka andrea, HAEE-IVAPen izenean.
- M. Karmen Ollora andrea, Arabako azterketa-batzordearen burua.
- Enrike Vivanco Baskones Bizkaiko azterketa-batzordearen burua.
- Nekane Beloki Arsuaga andrea, Gipuzkoako azterketa-batzordearen burua.

3. artikulua.– Azterketa Batzorde Bateragilerako ordezkioak hauek dira: lurraldeetako azterketa-batzordeetan idazkari-lanak egiten dituzten aztertzaileak.

4. artikulua.– Batzorde Bateragilea da hizkuntza-eskakizunen azterketa guztien arduradun, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak horretarako eman dituen arauzko erabakien ildotik. Era berean, lurraldeko batzordeburuei dagokie Azterketa Batzorde Bateragilearen xedapenak beren lurraldean ezartzea eta lurralde horretako azterketa-prozeduraren ardura.

#### AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENENGOA

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

#### AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRRENA

Ebazpen honen aurka gorako errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, argitara eman eta hurrengo egunetik hasi eta hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urriaren 23a.

Hezkuntzako sailburuordea,  
MIREN ARANTZA AURREKOETXEA BILBAO.